

- **Entzutekuak:** Korrika apirilaren 13an pasatuko da herritik
- **Erreportaia:** Ezozi Leturiondo politikariarekin izandako elkarrizketa.

soraluzeko
hamabostekaria **239.** alea
2011ko martxoaren 11n

@ piri piri ean



SORATUSTIAK
Eguzkiak jaia berotu du

EPOCA-GORO

SUKALDE ETA BAINUGELA ESTUDIOA

San Juan kalea 5, EIBAR • 943 700 216
www.epocasukaldeak.com



SUKALDEAK • BAINUGELAK • PROIEKTUAK • ERREFORMAK • DISEINUA



SORALUZeko URTARoEN ARGAZKI LEHIAKETA

NEGUA



Antolatzaileak:



Gaia: Negua adierazten duen Soralezeko edozein argazki; natura, kalea, baserria...

Epea: martxoak 31

Nora bidali: aldizkaria@pilpilean.com

Argazkien argitalpena: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herriko egutegian argitaratuko dira. Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldagiko erakusketa gelan.



MARKEL ARIZAGA



AITOR MADRID

TXAPELA, BAINA EZ BURUAN

A spaldiko Aitor, zela doa dana? Ondo, seguru. Denporan atzera juatia eskatzia nahi dotsut, baina gitxi, ondiok gaztia zara eta. Ziur nago gogoratzen dozula txikittan klasian irakasliak egindako galdera hura: "Nun nahixago dozue bizitzia, herrixan edo hirixan? eta zeba?" Erantzuna zure burura etortzen daguala ikusten dot, herrixan, nola ez! Eta arrazoiak be seguru danok erabilittako arrazoi estandarrek izan zirala: lasaittasuna, toki guztietara oinez juan ahal izatia eta kutsadura faltia. Oker nabil?

Gero nagusixaguak egitten gara eta gauzak pixkat aldatu egitten dira. Plaentxi hilda dago, ez dago ezebe egitteko! Ematen dau zahartzerakuan hirixak beran interestxua pizten doskula. Ba bueno, azkenaldixan arrazoi estandarretako bat inoiz baino zorrotzagua dala ikusi ahal izan dot. Entzungo zinuan Madrileko hirixak normalian daukan kutsadurazko txapeltxua nahiko modan ipini dala, Madrid Fashion Week ekitaldirako marketing ezin hobia.

Kutsadura neurtzen daben makinek lan ugari izan dabe azkenaldixan hemendik, neurri onargarrietatik gora egon gara eta egunotan. Baina lasai, ez jaku gehixegi inporta. Agintarixek ezergutxi egin dabe eta gainera Madrilen airian kalitaitia historiako onena dala esaten entzun bihar izan dittugu. Baina agintarixak ez diranak be betiko moduan lanera koixian bakarka. Zela egongo da ba apartatzeko lekua?

Azkenian onena herrixan bizitzia, lasixago, leku guztietara oinez eta kutsadurarik bare.

Denporan atzera juatia eskatzia nahi dotsut, baina gitxi, ondiok gaztia zara eta.

Markel Arizaga

Ingurugiro arluan herrixak hirixari apostua irabazten dotsa

Aitor Madrid

Aupa Markel! Hirixan eta herrixan arteko hautua egittia beste konparaketa asko moduan ez da erraza. Makina bat arrazoi daoz bai bata zein bestian alde egitteko. Zuk aipatzen dittuzun herrixan aldeko argudixuak kontutan hartzekuak badira jakina, baina hirixak be badittu bere alde onak. Hamaika gauza ezberdin egitteko aukeria (antzerkita juan, zinera, hitzaldixak...), garraio publikuan hara eta hona noiz nahi ibiltzia eta abar luze bat. Ingurugiro arluan egixa esan herrixak hirixari apostua irabazten dotsa. Hori gauza nabaria da. Hemen Soraluzen airiak ez daukagu ez kutsadurazko txapelik ezta antzekorik, zorionez. Baina daroiagun garraio eredu mantentzen badogu, plaentxiatar heldu ixa danak auto banatan ibiltzen, laister mini txapel bat etarako dotsagu herrixari.

Izan be gizartiak daroian eredu kontsumista honekin ezin dogu beste gauza ezberdinik espero. Erabili eta botatzian eredu bizi dogu. Erosten dittugun gauzok epe motz bateko biziraupena dauke eta kotxien kasuan gizaseme bakoitzak bere aletxua ipintzen dogu mundu gixajua pozoitzen. Egungo krisi ekonomikuak eredu zaharkituak aldatzeko balixo biharko loskuke zeeze ona etara nahi badogu bizi dogun kalbarixo honetatik. Lehen urratsa emate aldera, oin arte ingurugiro egoera kazkarrar arduratu ez diran politikari axolagabiei botua ez ematen hasi biharko ginake. Eta beste eredu ekonomiko eta sozial bat posible dala defendatzen dabenei gure konfidantza emon.

Goguan hartzeko

Hemen bizitzeko gauza askoren beharrean gara.
Platicac. II. J. B. Aguirre. 1850



GUTUNAK

Desbideratzei buruz hitz egin dezagun

Ezker Abertzaleak publikatu berri duen prentsa oharrari ondorengo zehaztapenak egin nahi dizkiogu:

Lehenik: Egikaritzen den edozein obra publikotan, gehienetan behintzat bai, desbideratzeak egoten dira. Jarduera batek beste baten beharra du eta kaleak altxatuta daudela zerbitzu ezberdinen berritzeari ekin egiten zaio. Alde Zaharreko kaleen zolaketarekin jazo dena da. **Bigarrenik:** Legealdi honetan, obra pulikoek suposatzen dutena jakinda, ez dugu inoiz gain kosteen inguruko salaketarik egin. **Azkenik:** Udal gobernuak egin duen

bezala, legealdi honetan egondako desbideratzei buruzko informazioa emango dugu:

Aseginolaza zahar baserriaren asfaltatze lanak; gain kostua 2.100 €; Polikiroldegiko aldagelen berritze-lanak; gain kostua 39.000 €; Estaziño-Gabolats igogailuen lanak; gain kostua 40.965 €; Hiri-zeharkale asfaltatze lanak; gain kostua 89.000 €; Futbol zelaiaren berritze-lanak; gain kostua 102.888 €; Guztira 273.953 €.

Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazioa gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean aldizkariko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldizkariko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzekeo gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, “herriko jubilatutako batzuk” edo “auzokide batzuk” edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **bel-tzezkorik** azalduko testuan.
- Epea: aldizkaria argitaratzen den asteko martitzen egardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Yoana Azpitarte
Martxoaren 8ak
mendea bete du

1975ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 8a finkatu zuen Emakumeen Nazioarteko Egun gisa. Mugarri garrantzitsua izan bazen ere, nazioarteko ospakizun hau ez zen egun hartan hasi. Izan ere, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako zenbait gertakaritan oinarritzen da. Hain zuzen 1910ean, 17 herrialdetako 100 emakume baino gehiago Kopengagen bildu ziren, eta Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko proposamena onartu zuten; hori horrela, lehen ospakizuna 1911ko martxoaren 16an egin zen. 1917an, emakume errusiarrak euren eskubideen alde manifestatu ziren; martxoaren 8an izan zen. Beraz, aurten Emakumeen Nazioarteko Egunaren mendeurrena ospatzen da, gizonekiko erabateko parekidetasunean eta gizarteko esparru guztietan parte hartzeko borrokaren hasieraren mendeurrena, alegia. Feminismoari lotutako elkarteek pauso handiak eman dituzte parekidetasuna lortzeko bidean baina oraindik ere egiteko asko dago emakumeen parekidetasuna bere osotasunean lortzeko. Emakume Batzordeak martxoaren 8ko kanpainarako antolatu dituen ekintzetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuet sorluzetar orori eta bereziki emakumeei. Parekidetasunarekin inplikatu eta parte hartu!

Apirilan 13an pasatuko da Korrika herritik

“Pausoz pauso, gelditu barik, pausozpauso, maitatu, ari... pausoz pauso, euskalakari!” 17. Korrikak izango duen lelo nagusietako bat da hau. Korrika Kulturalak beteko ditu datozen egunak eta dena ondo lotzeko lanetan dihardu Sorluzeko Korrika Batzordea.

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari da aurtengo lelua. Zer dala eta?

Euskalakarixa, euskeria maitte, ikasi eta erabiltzen dabena da. Korrika egitteko, grina izan, oinez jakin eta abiatu egin bihar da. Jausteko bildurrik bare. Euskaraz egitteko, maitte, ikasi eta jardun egin bihar da. Hankia sartzeko bildurrik bare. Herrittar danak euskalakari izango diran Euskal Herrixa da Korrikan azken helmugia eta hortik lelua.

Noiz pasatuko da Sorluzetik?

Apirilan 13an helduko da gurrera. Iluntze partian, 19:30ak 20:00ak inguruan. Zortzi kilometroz osatutako ibilbidia egingia tokatu jaku aurten.

Lelengo baina Korrika Kulturala izango dogu. Primiziarik?

Martxuan 19tik apirilaren 13ra bittartian luzatuko dogu egitaraua eta bertan, mendi martxak, talde argazkixa, abesti zaharren kantu afarixa, musika kontzertuak, filmak eta egun osoko ospakizuna ez dira faltako.

Zein da Korrika Batzordian funtzinua?

Korrika Batzordia herriko eragile eta elkarte batzuk osatzen dogu. Plaentzia mailan Korrika bera antolatzea eta herrixan



Korrika batzordeko kideak

suertatzen diran lanak elkarbanatzea da gure ardura nagusixa; dirua batu, propagandia egin... Korrika Kulturalerako egitaraua be batzordietan osatzen da, aniztasuna bultzatzeko.

Herri partaidetza garrantzitsua da orduan.

Herri partaidetza bare ez dago Korrikarik. Korrika AEK euskaltegixak proposatutako ekimena bada be, herrittarrak egitten dabe egingarri eta bideragarri. Danona dan Korrika aldarrikatu bihar dogu, euskal hiltun ezberdin danok osatzen dogun saria gogortu eta haundixagua egitten jarraitzeko.

Zela biziko dozue zeuek Korrika eguna?

Soraluzen ilusinoz betetako egun haundixa izaten da. Parte hartzia gero eta haundixagua da, herrittarrentzat euskeria garrantzitsua dan seinale. Korrika ospatu bihar ez dan eguna heldu arte euskerian alde lanian jarraituko dogu, euskaldun barrixak eta zaharrak egindako lana txalotuz.

“Herrittarrak egitten dabe Korrika egingarri eta bideragarri”

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

T. 943 75 16 46

Haurreskolen partzuergoarekin bilera egin du udalak

Soraluzeko Udala Haurreskolen partzuergoarekin bildu da gaur, Soraluzen Haurreskola zerbitzuan plazekin dagoen arazoiari irtenbidea topatze aldera. Jose Luis Arizagak jakinarazi duenez, plazen eskari zehatza zein izango den jakiteko gutun bana bidali zaie 2010. eta 2011. urtean jaiotako gurasoei. Eskaerak ongi aztertu eta zenbat plaza gehiago ezarri behar diren jakin behar du Udalak, Patzuergoari zuzentzeko gero.

Eraikin bila

Hedabide honi azaldutakoaren arabera, Udalak Haurreskola izango den eraikina eta honen instalazioak bideratu behar ditu eta Patzuergoa bere aldetik, Haurreskolako langileen eta ekipamenduaren jabe egin beharko da. Kostu ekonomikoak aztertzen eta irtenbideak bilatzeko lanetan dihardu Udalak. Datorren martitzenean, hilak 15, eskaera egin nahi duten gurasoekin batuko da, Patzuergoak zuzendutako guztia- ren berri emateko.



Udalari eskaera egin dion guraso taldea



Xabier Lete omentzeko entsegu orokorra martxoaren 19an

Herriko abesbatzak, musika eskolak, Xero Xiettek, Ventos de Saudadek, Duo Plaentxik, Akelarrek eta hainbat norbanakok Xabier Lete euskal idazle, kantari eta poeta zena omentzeko dute apirilaren 9an. Martxoaren 19an Zinean talde denak batuko dira, entsegu orokorra egite aldera. Aurreratu digutenez, ekitaldia errezitatutako 12 kantuk osatzen dute, eta kantu bitarteetan bere bizitzan garrantzia izan duten kanpoko poeten itzulpenak ere taularatuko dituzte.



Iturria: Ikor Kotx

Udalbatzarra atzeratu egin da

Martxoko udalbatzarra hilaren 2an egitekoa bazen ere (hileko lehen eguaztentean egiten da), Soraluzeko Udal Gobernu Taldeak 2011. urteko aurrekontuen zirriborroa osatu arte plenoa atzeratzea erabaki zuen. Aurrekontuen zirriborroa Ogasunaren bileretan lantzen dihardutela aurreratu du Jose Luis Arizagak eta seguruenik martxoaren 23an, eguaztentean, egingo den udalbatzarrean bozkatuko dituztela aipatu.

Elkarretaratze koloretsua martxoaren 8an

Aratusteetako martitzenarekin bat egin zuten martxoaren 8ko aldarrikapenek. Mozorro eta guzti 100 lagunetik gora Plaza Barrixan batu ziren "gairiditu dezagun menperatzen gaituena" lema zuen pankartaren atzean. Krisi garaian emakumeen lan egoera oraindik okerragoa bihurtu dela salatu nahi izan zuten, besteak beste.



Zuzenketa

Itxaropenako Batzar Nagusia 24an

Aurreko alean Zer Berri atalean Itxaropena Jubilatuen Elkarteko Batzar Nagusia martxoaren 14an egingo zela argitaratu genuen. Informazioa zuzentze aldea, Batzar Nagusia martxoaren 24an ospatuko dute, lehen deialdia arratsaldeko 17:00etan izanik. Barkatu eragozpenak.



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



Langabezi tasa igo egin da

Estatuko Enplegu Zerbitzuak Eibarren duen egoitzak aditzera eman duenez, 2011. urteko lehen bi hilabeteetan langabeziak nabarmen egin du gora Debarrenean, %5,2 hain zuzen ere. Sorailuzen, urteko lehen bi hilabeteetan 176 langabetu gehiago daude, 315 guztira. Aldiz 2010. urteko abenduan, 298 herritar lanik gabe zeuden. Enplegu zerbitzuak azaldu duenez, enpresetan ematen ari den krisiak eragin nabarmena izan du langabetuen igoera kopuruan eta zentzu honetan lan eskaeren perfilak ere asko aldatu dira. Hain zuzen langabetu gehienek zerbitzuetan lan egiteko eskaerak egin dituzte. Debarrenean guztira 3.379 langabetu daude.

Atzegik 50 urte bete ditu

Mende erdia bete du Atzegi elkarteak eta sortu zenetik aldaketa kualitatibo eta kuantitatibo nabarmen eman direla aipatu dute Debarrenen arduradunek. Oraindik egiteko asko dagoela azaldu dute eta besteak beste, bolondres lanak egitera animatu nahi dituzte Sorailuzeko herritarrek. 16 urtetik goragokoen aisialdia sustatzeko jendea behar da, afariak eta poteoak egiteko besteak beste. Izena emateko 943 42 39 42 ra deitu edo arantzaz@atzegi.org helbidera idatzi.

**Odol ematea Itzaropenan**

Martxoaren 25ean 18:30etik 20:30era bitartean odola emateko aukera egongo da Itzaropena Jubilatuen Etxean. Gipuzkoako Odol Emateen kargu den Urcelay doktoreak 18 eta 25 urte bitarteko gazteak odola eman dezaten animatu nahi ditu, 2010. urtean adin tarte horretan 5 odol-emate soilik egin ziren eta.

Gernikako akordioak atxikimendu ugari izan ditu

Euskal Herrian agertoki demokratiko bat ahalbidetuko luketen gutxieneko demokratikoak zehazteko asmoz, herriko hainbat eragile politiko, sindikal eta sozialek, "Bake Bidean aterabide demokratikoa", hau da, Gernikako Akordioa sinatu zuten aurreko zapatuan. Akordio honek, besteak beste, aukera politiko guztien jarduerako gutxieneko baldintza demokratikoak ezartzea jasotzen du, euskal herritar guztientzat eskubide guztiak aitortu eta errespetatzea eskatzearekin batera.

Ekitaldi labor baina jendetsua

Zapatuko ekitaldian Zineko eserleku gehienak beteta zeudela, bideo motz bat proiektatu zuten. Ostean, Akordioak jasotzen dituen bakera baldintzak ahoz goraz irakurri zituzten Monika Muro eta Maite Narbaizak. Herriko eragile eta norbanakoek akordioa sinatzera deitu zituzten eta amaitzeko, talde argazkia atera zuten.

Akordioaren sinatzaileak:

Eragileak: Sorailuzeko Ezker Aertzalea, Sorailuzeko Eusko Alkartasuna, LAB, Etxerat, Amnistiaren

Aldeko Mugimendua, Gazte Independentistak, Sorailuzeko Gaztetxea, EHE, Pilota taldea, Txuriurdinak, Sorailuzeko Futbol Taldea.

Norbanakoak:

Kontrargi kolektiboko partaideak: Fernan Oregi, Julio Mendikute, Carlos de Cos eta Mikel Valero.

Pil-pilean Euskara Elkarteko langileak: Arrate Gisasola, Miren Narbaiza, Iñigo Uribebebarria, Leire Iturbe eta Maite Kintanilla.

Abertzaletasunaren oroimena: Arantza Lasa eta Hilario Iturbe.

Atxolin Guraso Elkarteko kideak: Luis Ariznabarreta eta Iñigo Urdangarin.

Dantza Taldeko Kideak: Amaia Argarate, Miren Exposito, Naiara Kortaberria eta Egoitz Unamuno.

Judo Taldea: Juanra del Barrio.

Irakasleak: Maite Gorostidi eta Amaia Laskurain.

Memoria historikoko partaideak: Maite Larrañaga eta Tere Gueñetxea.

Emakumeen Topaguneko kide: Etzoz Larrañaga.

Ludotekako langileak: Nerea Bollar.



Gernikako akordioa sinatu dutenak

Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurrutxa
 K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
 GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



Soraturustiak 2011



Esozi Leturiondo Aranzamendi

“Sortuk autokritika eta hausnarketa behar du sinesgarri izateko”

Soraluzetar hau 15 urterekin herria laga eta Gasteizera joan zen bizitzera, bailarako familia askoren antzera. Mario Onaindiaren emaztea izanagatik ere ezaguna, politikagintzan sartua dago eta 2005etik PSE-EE alderdiko legebiltzarkidea da EAEko hiriburuan. Bizi dugun egoera politikoaren gainean hitz egin digu.



*“Sorturen-
tzat inportan-
teena aniztasuna
errespetatzen
dutela esatea
da ”*

Zela ikusten dozu egoera politiko barrixa?

Kontraesankorra da. Alde batetik nabaria da Sortuk aurkeztu dituen estatutuek ez dutela inungo pegarik. Baina ez da nahikoa, jende askok asko sufritu du eta ez terrorismoa egon delako bakarrik, baizik eta giza babes bat ere egon delako. Beste pentsakera bat izanagatik jendeak asko sufritu du, erahil arte. Ez noa barkamenetaz eta hitz egitera, baina uste dut keinu batzuk egon behar direla, “egin dugu ibilbide bat inora ez doana, kalte haundia egin dugu”... Euren proiektu politikoa besteena bezalakoa dela esan behar dute. Demokrazia onartzea ez da papeletan estatu demokratikoaren joku arauak onartzea. Inportanteena aniztasuna errespetatzen dutela esatea da. Hausnarketa bat, keinu bat, autokritika pixkat behar dugu, eta hori ez da eman.

Hala eta be, pauso hori ikusten dozu?

Bai, bai. Papeletan datorrenak ez du inolako pegarik. Ziur nago beste alderdiekin alderatzen baduzu ez dagoela inolako alderik funtsetan. Baina sinesgarritasun hori irabazi egin behar dute. Hemen gertatu dena oso oso gogorra izan da.

ETAren bukaeria gertu daguala uste dozu?

Lehian dagoena euren barne gogoeta da. Sorturen eskuetan dago, ez guretan. Aurreko su etenean ere erabat sinistuta egon ginen, jende askoren kontra. Guk nahi dugu hori gertatzea eta berehala sinatuko genuke. Baina apurtu behar badute, beraiek egin beharko dute.

Sortu legalizatzen ez badabe, ETAk armak berriro hartuko litzukezela uste dozu?

Hori txantaia egitea da. Orain izan duten aukera galtzen badute ez direla ausartak izan pentsatuko genuke. Guk eurengan sinistu behar dugu, baina eurak ere keinuren bat eman behar digute sinistu ahal izateko. Horrela jarraitzen badute oso zaila jartzten die legeztatzea.

“Aurkari politikoa ez da mundutik ezabatu behar den zerbait”

Zela irudikatuko zenduke bi aldien adiskidetzeko prozesu bat?

Ez, ezingaraerdian jarri. Aldebatek eman behar du pausoa. Hala ere, barkamena eskatzen ibiltzea baino, errezagoa da autokritika bat egitea. Bide bakarra hori da. “Nire proiektua ez dago besteenaren gainetik”, esan behar dute, “nire proiektuaren izenean ezin dut jendea erahil”.

Zelako Euskal Herria irudikatzen dozu hemen-dik hamar urtera?

Diskurtsoa ondorengoa litzateke: “Proiektu guztiak berdina dira eta joku arau berdinekin lehian jarriko gara eta hori errespetatuko dugu”. Aurkari politikoa ez da mundutik ezabatu behar den zerbait. Aniztasuna, demokraziaren oinarrian dago eta hori guztiok barneratzen badugu zoragarria litzateke. Egia da mundutako jende asko dagoela, baina ez dut uste halako gorrotorik dagoenik. Eta gutxi behar da, zerbaiti heltzea baino ez.

“Idea guztiak ez dira errespetagarriak, baina pertsonak bai”

Zer eragin izan zeban Mario Onaindiak zure bizitza politikuan?

Ibilbide politikoa ia elkarrekin egin dugu. Nik lehenagotik ezaguna nuen, baina kartzelatik irten zenean ondo ezagutu eta elkarrekin bizitzen hasi ginen Gasteizen. 1978an ezkondu ginen eta orduetik bide berdina egin dugu. Berak irakatsi zidan alde politikoak inoiz ezin direla eremu pertsonaletara eramanez. Pertsonak daudela guztiaren gainetik. Ideia guztiak ez dira errespetagarriak, begira faxismoa, matxismoa... baina pertsonak bai.

Zer uste pentsatuko leukela egoera honen aurrian?

Esperantzatsu legoke, ziur! Momenturik eskasenetan ere ikusten zuen zerbait ona, oso baiko-rra zen. Orain, oso sutua ere bai gauza batzuetan. Paper batek ez zaitu demokrata egiten eta demokrata izatea gure ideia izan duen batendako oso zaila da.

Izena: Esozi Leturiondo Aranzamendi

Jaiotza urtea: 1951

Bizitokia: Gasteiz

Ibilbide politikoa: 17 urte zituenetik dabil politikagintzan. 1970eko hamarkadan Euskadiko Ezkerrean eta egun PSE-EE-ko legebiltzarkidea da 2005etik Gasteizen.



Bere biografia jasotzen duen pelikula bat egin-duten dihardute.

Gidoiei begirada bat emateko eskatu zidaten eta oso ondo jasotzen du orduko giroa. Ondo dago hemendik kanpo jendeak gu nundik gatozen ikustea, zer gorroto egon den gure aurka, euskeraren aurka... Zer eragiten du 20 urteko gazte batek erabaki hori hartzea, bere bizia emateraino? Jendeak ulertu behar du hemen badagoela zergati bat eta sorrera hori justifikatuta egon zela ikustarazi behar da.

Soraluzez ze oroitzapen daukazuz? Hartuemonik mantendu dozu?

Oso nohizean behin joaten naizen arren gogoratzen ditut lehenengo dantzak Plaza Zaharrean, mendi bueltak, lagunekin jolasak... Baina benetan pozten nau Pil-pilean irakurtzeak, nire aitak zela hitz egiten zuen plaentxieraz gogorarazten dit. Zorionak eman nahi dizkizuet Pil-pileaneko langileei, euskalkia mantentzearen. Altxor bat iruditzen zait, dagoenik ederrena.





OÑATIKO NATUR ESKOLA

2. mailako ikasleok aspaldi honetan animalien 2. gaiarekin gabiltzalako, astelehenean Oñatiko Natur Eskolara joan ginen. Bertan, Euskal Herriko animali basatiak ikusi ondoren, bakoitzak bere ogia eta etxerako kandelatxoak egin genituen. Baserri batera ere joan ginen etxe abereak ikustera. Ugaz-

tunen artean behi familia osoa eta bakoitza zer den aztertu genuen. Behiak ornodunak, belarjaleak eta bibiparoak direla jakin genuen.

Hegaztien artean oiloak, ornodunak, orojaleak eta obiparoak direla ere jakin genuen.

Guk, pilo bat ikasi genuen eta zuek... ausartzen zarete hiru galdera hauek asmatzen?

Behiaren familiakoa, emea, txahala eta behiaren tartekoa da. Zein da? Bigantxa ala idiskoa?

Behiaren familiakoa, arra, txekorra eta zezenaren artekoa da. Zein da? Bigantxa ala idiskoa?

Jaten dugun oilaskoa arra ala emea da?

Nahiz eta euri asko egin, argazki hauetan ikusten den moduan primeran pasatu genuen!



2. maila

txiki



inkesta

Zela ospatzen dittuzu aratustiak?

Egitarauari zeoze falta jako?

Paula Arana, 10 urte



Nik euskal dantzak egitten dittut eta zapatuan dantza egitten dogu beti. Horregaittik txuriz jantzita urtetzen dot, azpiko gona eta zapata zurixekin eta lorak buruan. Dantza egin ostian, lagunekin jolastu eta soziedadian afaltzen dogu. Aratustietan musika gehixago eta barrakak jartzia nahiko neban.

Xabier Arriaga, 10 urte



Aurten cowboy jantzita urten dot kalera. Soziedadian bazkaltzen dogu lelengo eta bukatutakuan lagunekin kalera urtetzen dot, danak mozorrotuta! Neri asko gustatzen jataz aratustiak baina herrixandako merendola bat eta dantzaldi gehixago egotia ondo egongo zan.

Iaz maskara eta kapa batekin mozorrotu nintzan eta normalian azkeneko momentuan pentsatzen dot zer jantzi! Lagunekin pasatzen dot arratsaldia eta gurasuekin afarixa izaten dot gero. Aratustietako onena? astebete jai dakagula! Hau bai ez nebala aldatuko...

Iñaki Recio, 11 urte




Euskal dantzak egitten dittut eta dantzian arabera desberdin mozorrotzen naiz. Aitakin eta bere lagunekin afaldu ostian, kalera urtetzen dogu piskat! Aratustietako onena jai-girua da eta play-back lehiaketia be oso ondo dago. Barrakak ipintzia ez zan gaizki egongo.

Irati Larreategi, 10 urte



DENBORAPASA



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Arabiar lurraldeetako erreboltek gasolinaren prezioa garestitu dute. Petrolio erreserbak mantentzeko Espainiako Gobernuak hartutako neurrietako bat, autobidean gehienezko abiadura 120 km/h-tik 110 km/h-tara jaitea izan da.

Eraginkorra pentsatzen jatzu 120km/h-tik 110km/h-rako neurrixa?

AMAIA UNAMUNO


Irakaslia



Ez dot larregi ulertzen baina nik uste dot ezetz. Komunikazino bide erosuaguk ipini biharko leukiez eta garraio publikua bultzatu. Saiatzen garan arren, seguru nagogidarixak ez dabela neurrixa errespetatzen.

GOTZON ELIZBURU


Ikaslia



Ez jata pentsatzen. Auto-pistan eta kotxieri bakarrik eragitten dotse. Gainera, mugimendu haundixena herri arteko errepidietan emoten da. Uste dot neurri honek komunikabidietan bestelako gaixak tapatzeko balixo izan dabela.

LAURA LIZARRALDE


Etxekoandria



Ba ez dakit, abiaduragutxiago kontsumo gutxiago, ezta? Dana dala, multak be ipiniko dittue eta lelungan errespetatzen ez bada bigarrenian egingo da. Baina lehen bizkor zebilena, oin be holaxe ibiliko da.

NIKO MENDIA

Irakaslia



Propaganda hutsa da. Badare aurretoko beste modu batzuk. Argiztapena esate baterako, gabian iluminatuta daren monumentuak, bidegorriak... emendatu ahalko lirake. Lehen 120xak ez ziran errespetatzen eta oin bez.



Diseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06

T. 943 75 16 00

F. 943 75 24 61

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



Javier Alberdi



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Korrika Batzordea egitaraua ixten

Osatuta dago dagoeneko 17. Korrikak herrian izango duen ordezkari taldea, Soroluzeko Korrika Batzordea hain zuzen ere. Batzordearen hurrengo bilera martxoaren 14an izango da, 19:00etan AEK euskaltegian. Bileran, Korrika Kulturaleko egitaraua itxi, lanak banatu, kilometroak banatzeko zerrenda osatu eta diru-kontuak landuko dituzte, besteak beste. Herri-tarrak gonbidatuta daude batzorde-tan parte hartzera.

**Martxoko Kultur Agenda****GAUR, 22:15ean Zinean**

ZINE-EMANALDIA. "80 egunear" Gaueko 22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea

BIHAR, zapatua

Soroluzeko Txuri Urdinak 8. urteurren FESTA.

Ant: Soroluzeko Txuri Urdinak

BIHAR, zapatua

TX00TX! Pil-Pileanekin Sagardotegira!

Irteera: 12:30ean Estaziotik.

Ant: Pil-Pilean Euskara Elkartea

MARTXOAK 16, eguaztena

ZINE FORUMA, kafearen usainean. Arratsaldeko 18:30ean, Zinean.

Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea

MARTXOAREN 18tik APIRILAREN 3ra

MARGO-ERAKUSKETA: Bingen de Pedro.

Inaugurazioa: Martxoak 18 bari-xakua, 19:00etan.

Ant: Oreka Art Galeria

MARTXOAK 19, zapatua

IRTEERA Donostiako Kutxa Gunera. L.H. 3. eta 4. mailako ikasleentzat.

Ant: Soroluzeko Udala

MARTXOAREN 21etik 25era "OPORLEKUAK"

Izen-ematea martxoaren 25a arte, ikastetxean. 4 urtetik 8 urtera bitarteko umeentzat.

Ant: Soroluzeko Udala

Kontrargik "Beste animalia batzuk" erakusketa zabalduko du

Antoni Valencia irundarra-aren intsektuen argazkiek apainduko dituzte kiroldegiko erakusketa gelako hormak, martxoaren 15etik 31ra bitartean. 15 urtez Espainiako estatu osoan jasotako animalia ezberdinen 35 erretratuk osatuko dute erakusketa, begi bistaz ikusteko zailak diren intsektu batzuei ateratakoak: armiarmak, erleak eta euliak, besteak beste. Valenciak 21 urtez dihardu argazkilari zaletu moduan eta aitortu duenez, Ulia

mendia da bere inspirazio iturri. Ez da lehen aldia Soroluzen jardungo duena, orain bi urteko argazki rallyan epaile moduan jardun zuen eta. Kontrargik babestutako erakusketa izango da hau eta elkarteko kideek herri-tar denak inaugurazio ekitaldira gonbidatu nahi dituzte.

Ordutegia:

Astegunetan 19:00-20:30

Asteburuetan 12-13:30

Erakusketa osatuko duten irudietako batzuk



"Kosta ala kosta" udalekuak herriko gazteentzat

Kukumixo Aisialdi Taldeak 2011ko udarako plan berria proposatu du. Arrasateko Txatxilipurdi eta Bergarako Jardun aisialdirako taldeekin elkarlanean, "Kosta ala Kosta" 14-16 urte bitarteko gaztetxoendako udalekuak antolatu ditu. Uztailaren 5etik 16ra adin horretako gaztetxoek Euskal Herriko txokoak ezagutu eta gozatzeko aukera izango dute. Hamaika egunetan zehar, mendia eta itsasoa tartekatuko dituzte euren ibilbidean.

Pil-pileaneko bazkideek %5eko deskontua jasoko dute

1995-1996an jaiotakoei zuzenduta daude udaleku hauek. Prezioa 275 eurokoa da. Familia ugaria edo euskara elkarteko bazkide denak %5eko deskontua izango

du (261,25 euro ordainduko ditu). Bi baldintzak betetzen dituenak berriz %10ekoa (247,50 euro ordainduko ditu). Izena emateko, Pil-pilean Euskara Elkartera deitu behar da 943 75 13 04 edo e-postara idatzi euskara@pilpilean.com helbidera. Izena emateko azken eguna maiatzaren 6a da.



Arrasate, Soroluze eta Bergarako arduradunak

Iturria: Goierna

Omar Frailek irabazi du XIV. Soraluze Saria

Soraluze Sariaren XIV. edizioa otsailaren 27an jokatu zen. 116 km-ko ibilbidea egin zuten 107 txirrindularik, Soraluze hasi eta Eskoriatza eta Mendarotik pasa eta gero, Soraluze San Andres auzoan bukatu zena. Helmugara lehenengo hiltzen Seguros Bilbao taldeko Omar Fraile izan zen, 2:55:13 segundoko denbora eginda. Bigarren Naturgas taldeko Igor Merino eta honen atzetik Fernando Grijalba. Mendiko saria ere frogako irabazleak, Omar Frailek, eskuratu zuen. Naturgas taldeak jaso zuen frogako

Iturria:
Mikel Valero eta
Carlos de Cos



Omar Fraile helmugara heltzen

talderik onenaren saria. Juan Mari Oregik Belca taldeko Ur-dangarini debuteko sari berezia eskaini zion, elastiko eta guzti.

Hernandezek ezin izan zuen froga bukatu

Soraluzeko Mikel Hernandez eta Alberto Gineak ere hartu zuten parte. Mikelek ezin izan zuen probabukatu; taldekoeilaguntzen ibili zen, lasterketaren buruan tiraka ihesean zihozen taldekideen denbora mantentzeko. Indarrak ahitu zitzaizkion eta lasterketa bukatu gabe, erretiratu egin behar izan zen Hernandez. Pozik agertu da baina egindako lanarekin eta froga honetan bere indarrak neurtu dituela gehitu du.

Alberto Gineak lortu zuen lasterketa bukatzea. Naturgas Energia taldeko soraluzeetarrak 32. sailkatu zen, 2:59:49 segundoko denboran. Mikel Hernandezek Laudion ere lehiatu zuen aurreko domekan eta saririk irabazi ez bazuen ere, froga ondo bukatzea lortu zuen. Domeka honetan Espainiako Kopako lehen frogako egingo da Asteasun eta Hernandez bertan izango dela aurreratu du.

Atxotegi eta Altuna Mungian txapelaldun

Aitor Atxotegik eta Iñigo Altunak Mungiako pelota torneoa jokatu zuten aurreko asteburuan eta 22-16 irabazi zuten



Iturria: Aitor Atxotegi

Bikotea txapela jantzita

Beitia eta Urberuaga bikotearen kontra. Lehia gogorra izan zela azaldu du soraluzetarra, afizionatu mailan jokatzen badute ere, lehen mailako pilotari asko, profesionaletatik afizionatu mailara pasa direlako eta beraz, maila handiko pilotariak osatzen dute afizionatu maila.

Laskurainek irabazi egin behar du

Gonzalezek eta Laskurainek finalaurreko ligaxkara sailkatzeko aukera dute oraindik baina horretarako zapatu honetan Gernikan Berasaluze VIII eta Apraiz bikotearen aurkako lehia irabazi egin beharko dute. Irabaziz gero, finalaurreko ligaxkara zuzenean sailkatuko dira.

EMAITZAK

PELOTA

Arretxe II – Ibai Zabala 19
Gonzalez – Laskurain 22

Gonzalez – Laskurain 18
Bengoetxea VI – Patxi Ruiz 22

Mendizabal – Lukin 13
Atxotegi – Aldape 22

Mungiako Finala

Atxotegi – Altuna 22
Beitia – Urberuaga 16

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Martutene "B" 5-1

Bergara K.E. "B" – Sora (Erreg.) 0-1

Danena K.E. – Sora (Erreg. B) 6-0

Sora (Erreg. B) – Zarautz K.E. 3-1

Eibartarrak "B" – Sora (Jub.) 4-1

Jubenilek deskantsua

Sora (Kad.) – Arizmendi K.E. UDA 2-0

Kadeteek deskantsua

AGENDA

PELOTA

Partidu erabakigarria

Zapatua 13, 17:30ean Gernikan

Berasaluze VIII – Apraiz

Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Domeka 13, 11:30ean Michelinen

Ostadar K.F. – Sora (Erreg.)

Zapatua 12, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg. B.) – Trintxerpe

Zapatua 12, 16:00etan Bikuñan

Ilintxa – Sora (Kad.)

Domeka 13, 17:00etan Ezozin

Sora (Jub.) – Zestoa

Domeka 13, Azkoagainen

Aloña Mendi K.E. – Sora (Alebinak)

ESKOLARTEKO IBILALDI NEURTUA

Eguna: martxoak 13, domeka

Irteera: 8:30 Plaza Barritik

Ibilbidea: San Andres, Askaibeitti,

Atxolin, Urkiazelai, Ezozin eta

Mendotz

Iraupena: 2 ordu 30 minutu

XLII. HIRU TXIRLO BOLO TXAPELKETA

Egutegia:

Martxoak 12 San Pedro (Elgoibar)

Martxoak 26 San Migel (Elgoibar)

Apirilak 2 Lastur (Deba)

Apirilak 9 Asola Berri (Eibar)



ZORION AGURRAK



Markel Soraluze
Martxuan 14an 5 urte!
Zorionak txapeldun,
etxekuen partez!!



Juani Soraluce
Zorionak izeko!!
Ondo pasatu eta muxu bat
Julen, Markel eta etxekuen
partez!



Jon Urdangarin
Martxuan 9xan 10 urte!
Zorionak txapeldun!
Muxu haundi bat,
asko maitte zaittugu!
Etxekuak



Ibai Rodriguez Larrañaga
Martxuan 11n, 7 urte!
Zorionak txapeldun!
Muxu haundi bat,
etxekuen partez!



Unai Cortes
Martxuan 17xan 8 urte!
Zorionak mutil haundi!!
Muxu haundi-haundi bat
familixa guztixan partez!



Zorionak Amuitz!!
Martxuan 17xan 3 urte.
Muxu erraldoi bat
etxekuen partez!



Irune Odriozola
Martxuan 19xan 21 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
etxekuen partez!!

hildakoak

JOSE LUIS ALTUBE ERRASTI
ROSA GARAY ELORZA
VALENTINA ZOZAYA ELORZA



LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Txomin Artolak eta Anje Duhalek martxoaren 20an Espaloia Kafe Antzokian eskainiko duten kontzerturako bi sarrera.



► **Irabazlea:** Ana Sebal

► **Jose Antonio Bouzas,** Mankomunitateko langilia da aurreko aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra. .



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Naiara Beretxinaga

87KO ARATUSTIAK AKORDUAN

Erretratu hau oin 24 urte jasotakua da, 1987. urtian hain zuzen be. Ikastolako kalejiria egin ostian, ilun-tze partian herriko ume danak Plaza Zaharrian batzen ziran, bertan antolatzen zan jaixan parte hartzeko. Sasoi hartan ume ziranak zezen suzkuakin lehertu arte korrika egitten zebela dauke akorduan.

Argazkikuak, ezkerretik eskumara: Oihana Mendizabal, Antton Alberdi, Naiara Beretxinaga, Idoia Alberdi, Iratxe Sebal eta Olatz Sebal.

Argazki zaharrak behar ditugu

Izan direlako gara...



Iragana **gogoratu** dezaten
bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten
bizi izan ez zutenek

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!



Bidali **argazki zaharrak** aldizkaria@pilpilean.com helbidera, Pil-pilean Elkartetik pasa edo Iratxo gozodendan utzi!
Astebetean itzuliko dizkizugu!



Pil-Pileaneko
DISEINU GRAFIKO
ZERBITZU

OINARRIZKO PAPERDEGIA KARTELAK
ALDIZKARI eta **ESKUORRIAK**
LOGOTIPOAK
TRATAMENDUA
ARGAZKEN
BINIOAK

Pil pilean elkarteak diseinu grafiko zerbitzua eskaintzen du. Interesatua bazaude jarri harremanetan diseinua@pilpilean.com edo 943 75 13 04 telefonora deituta. Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe.

JAVIER MESTRE
 Elektrizitate eta telekomunikazioak

Tel 943 75 30 98
 j_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357
 Tentsio baxuko instalazionalerregistro zbk. 20/ccbt-2119
 Fitxuri kalea 19-3, ezk. 20.590 Soraluze

Egokitu ezazue zuen antena kolektiboa L.T.Daren 2. faseerako

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe





Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

100 URTEA
 1910 - 2010

943 75 13 45

ARMENDIA JATETXEA



Ezozi Auzoa 11
 20590 Soraluze
 T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA TRADIZIONALA



lirana

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

HARATEGIA

Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarteak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze GIPUZKOA



MAPFRE
 SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-B Behea
 20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
 e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
 Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 76
 FAX: 943 75 16 10

Trebiñu - Donostia 2011ko apirilaren 7tik 17ra

Badator KORRIKA!!



Soraluzeko KORRIKA batzordea